

2021eko lehen hiruhilekoan esportazioen prezioak % 1,2 igo ziren aurreko hiruhilekoaren aldean

Inportazioen prezioak, halaber, % 6,6 igo ziren

2021eko lehen hiruhilekoan, esportazioen prezioek % 1,2ko hazkundera izan dute 2020ko azken hiruhilekoarekin alderatuta, Eustatek landutako datuen arabera. Baldin konparazioa aurreko urteko hiruhileko berarekin egiten badugu, % 3,3ko gorakada izan da.

Inportazioen prezioek jokamolde bera izan dute: % 6,6 igo dira aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 1,6 hazi dira 2020ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta.

Esportazioen barruan, produktu energetikoen prezioek % 0,1 egin zuten behera 2020ko laugarren hiruhilekoaren aldean, eta ez-energetikoen prezioek % 1,6 egin zuten gora. Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, ondasun energetikoen prezioak % 4,0 igo dira, eta ez-energetikoenak % 3,2.

Inportazioen kasuan, produktu energetikoen prezioen indizea % 20,7 hazi zen hiruhileko arteko tasan eta ez-energetikoenak % 3,6; halarik ere, urte arteko alderaketan, prezio energetikoenak % 6,5 egin dute behera, eta ez-energetikoenak % 5,1 egin dute gora.

Euskal Aeko kanpo merkataritzaren Unitate Balioaren Indizeak, xede ekonomikoa aintzat hartuta (%). I/2021

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	1,2	3,3	6,6	1,6
Produktu energetikoak	-0,1	4,0	20,7	-6,5
Produktu ez-energetikoak	1,6	3,2	3,6	5,1
Kontsumo-ondasunak	0,0	0,1	2,1	3,2
Kapital-ondasunak	3,2	9,2	3,9	-2,0
Bitarteko-ondasunak	1,2	2,7	7,3	1,9

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Helburu ekonomikoaren arabera sailkapenari jarraituz, azpimarragarria da Kapital Ondasunen (% 3,2) eta Bitarteko Ondasunen (% 1,2) esportazioen prezioen hazkundera, aurreko hiruhilekoaren aldean. Urte arteko terminoetan, Kapital Ondasunen (% 9,2) eta Bitarteko Ondasunen (% 2,7) prezioek ere gora egin dute; Kontsumo Ondasunen prezioak, aldiz, ia aldatu gabe ageri dira bi konparazioetan.

Azterketa inportazioetan jarriz, ikus daiteke Kontsumo Ondasunen prezioak igo direla hala hiruhileko artean (% 2,1) nola urte artean (% 3,2) ere. Bestalde, Kapital Ondasunetan urte arteko % 2,0ko atzerakada izan da, eta hilabete artean % 3,9ko hazkundera gertatu da. Bitarteko Ondasunen kasuan, hazkunderak izan dira hala hiruhileko arteko alderaketan (% 7,3) nola, neurri txikiagoan bada ere, urte artekoan (% 1,9).

Esportazioek xede dituzten **eremu geografikoak** kontuan hartuta, 2020ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, prezioak eremu guztietan igo ziren, Munduko gainerakoan izan ezik (-% 1,9). Euro eremuan % 2,8 hazi dira, EB-28an % 2,7 eta ELGAN % 1,8. Aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, joera errepikatu egin da: prezioek gora egin dute eremu ekonomiko guztietan, Munduko gainerakoan izan ezik, non % 1,6 egin duten behera.


Euskal AEko kanpo merkataritzaren Unitate Balioaren Indizeak, ekonomikoak-eremua aintzat hartuta (%). I/2021

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	1,2	3,3	6,6	1,6
Euro eremua	2,8	4,1	4,5	5,3
EB-28	2,7	3,5	5,1	5,6
ELGE	1,8	4,1	6,8	1,6
Munduko gainerakoa	-1,9	-1,6	6,9	1,3

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Inportazioei dagokienez, aurreko hiruhilekoaren aldean prezioek gora egin dute eremu geografiko guztietan. Nabarmentzekoak dira ELGA (% 6,8) eta Munduko gainerakoa (% 6,9); guztiaz ere, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, Euro eremua (% 5,3) eta EB-28 (% 5,6) nabarmentzen dira, eta ELGAtik (% 1,6) eta Munduko gainerakotik (% 1,3) etorritako inportazioek hazkunde apalagoak izan dituzte.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62